



Lana / La obra

Umetatiko lehen amodio bortitz, ero, galgarri, menderaezin baten historia da Gailur Ekaiztsuak. Min-bizi bihurtutako bizi-min baten historia. Heathcliff da nobelaren ardatza. Machiavelloekin eta Sadeko Markesarekin lotu izan dute pertsonaia hori. Obsesio baten kontakizuna dugu, beraz, eleberria.

Catherine Earnshawk bazter uzten duenean bere anaierde Heathcliff –ijitokume bat, aitak Londrestik ekarria eta etxean hazia– Edgar Lintonekin ezkontzeko, Heathcliff urrundu egingo da, baina bi helburu hauek betetzera itzuliko da: Earnshawtarren etxea bereganatu, bere umetako maitearengandik hurbil egoteko, baina, batez ere, jabetzak ematen dion botereaz bere indarra erakusteko.

Amodio destainatu baten istorioa da, beraz, *Gailur Ekaiztsuak*, baina hori baino gehiago ere aurkituko dugu eleberri honetan: amodio gutxietsiak eragindako mendeku baten kontakizuna, pasio menderaezin batena, baretu ezineko min bizi batena.

Fitxa tekniko / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Gailur ekaiztsuak**

Egilea / Autor: **Emily Brontë**

Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 171

ISBN / EAN: 978-84-9109-250-6

Salneurria / Precio: 19,90 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 472

Formatua / Formato: 13 x 19,5 cm



Egilea / El autor

Emily Brontë Thornton en jaio zen, Ingalaterran, 1818an, bost ahizpa eta anaia batez osatutako familia batean. Aita kezka intelektual handiko gizona izan zen, eta semealaba guztiak eskolatu zituen: emaztea hil zitzaionean, elizgizonen alabentzako barnetegi batera bidali zituen bereak, eta semeari aukera handiagoa eman zion.

Brontë ahizpak giro bikainean bizi izan ziren beren literatur grinari bide emateko. Dirudienez, hala ere, idaztea, giro hartan, jolasa besterik ez zen haientzat, bizi ziren inguru latzean –Hawortheko paramoak– beste ezer baino gusturago egiten zutena: istorioak sortu, poemak idatzi, eta, batez ere, eskura zutena irakurri, hori bera ere ez baitzegoen edonoren irispidean. Hala, esku artean izan ohi zituzten *Blackwood Magazine*, *Edinburgh Review* edo *Fraser's Magazine*, non agertzen baitziren –eduki politiko eta literarioaz gain– izu eta misteriozko kontakizunak, eta baita poemak, eta etxe xarmatuak eta fenomeno bitxiak hizpide zituztenak ere.

Oso umetatik hasi zen idazten Emily Brontë, nahiz eta idatzitakoaren parte handi bat galdua den. Haren poemak gelditzen zaizkigu, hala ere. Eta *Gailur Ekaiztsuak* eleberri hilezkorra.

Itzultzailea / Traductor

Irene Aldasoro (Idiazabal, 1955) Itzultzaile autonomoa, alor ugari jorratu ditu bere lan-ibilbidean. Ikus-entzunezkoetan eta hiztegigintzan aritutakoa da, eta lege-testuak eta zientzia-liburuak ere itzuli ditu. Literatur itzulpenean, besteak beste, James Joyce, Henry James eta D.H. Lawrence-ren lanak euskaratu ditu. Joycereen *Dublindarrak* lanari esker Euskadi Itzulpen Saria eskuratu zuen 2000. urtean.